

Euskadiko ingurumen-sektorearen abaguneari eta bere nazioartekotze-potentzialari buruzko azterketa

2022ko uztaila



Edukia



01

Metodologia eta ingurumen-sektorearen sarrera

- Garatutako metodologia
- Ingurumen-sektorearen deskribapena

02

Ingurumen-sektorearen ezaugarriak

- Ondorio nagusiak eta ikuspegi agregatua
- Balio-katearen eta agente-motaren araberako desagregazioa

03

Egungo egoera eta nazioartekotze-potentziala

- Nazioarteko presentzia eta esportazioak
- Nazioartekotze-potentziala

04

Ondorio nagusiak

- Sektoreari buruzko AMIA

Erantzukizun-deskargua

Basque Trade & Investmet-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzaileen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzaileei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsoneri.

Hartzaileak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzaileak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.




01

Metodologia eta
ingurumen-sektorearen
sarrera

Ingurumen-sektorea hiru sektore handietan (lehena, bigarrena eta hirugarrena) banatutako jardueraz elikatzen da, eta sei balio-kate nagusi bereizten dira, xede nahiz teknologia propioak dituztenak.


Ingurumen-sektorea osatzen duten balio-kateak

Hondakinen kudeaketa




Minimizazioan, berrerabilpenean, birziklapenean, kudeaketan, balorizazioan eta amaierako deposizioan oinarritutako mota guztietako hondakinen kudeaketa integrala, plangintza on baten, irtenbide logistikoaren eta ekipamendu eta tratamendu espezifikoaren bidez, bai eta teknologia berriak erabiliz.

Lurzoru kutsatuak



Lurzoru kutsatuen inguruko ikerketa, arriskuen azterketa, eta leheneratze- eta babes-jarduerak, ongi jakinik lurzorua baliabide urri eta ez berriztagarria dela.

Uraren ziklo integrala



Honela ulerturik: urak egiten duen bidea naturan hartzen denetik eta, banaketa-prozesutik igaro ondoren, egoki araztuta naturara itzultzen den arte. Eta beti ere kontuan izanik uraren kudeaketaren digitalizazioa funtsezkoa dela ingurumenaren babesean aurreratzeko, baliabide hidrikoen kudeaketa hobetzeko, klima aldaketari aurre egiteko eta erronka demografikoa gainditzeko.

Ingurumenaren kalitatea




Zarata eta airearen kalitatea kontrolatzeko eta monitorizatzeko jarduerak, eta atmosferara isurtzen diren kutsatzaileen emisioen murrizketa, behar diren konponbideen bitartez. Klima Aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko ekintzak/neurriak diseinatu eta ezarri, enpresa eta erakunde publikoei laguntza emanez ekintza eta neurri horiek integratzeko euren kudeaketa-planetan.

Ekosistemak



Barne hartzen ditu gure ekosistemak jasandako kalte larriak konpontzeko lanak, bioaniztasuna babesteko jarduerak, eta hala hiriaren nola lurraldearen leheneratze-lanetan natura integratzeko jarduerak guztiak. Horretarako Oinarritutako Konponbideen gisako metodoak, aukera ematen dutenak ekosistemetako prozesu, funtzio eta zerbitzuen berreskuratze osoa nahiz partziala egiteko.







Fabrikazio ekoeraginkorra eta ekodiseinua



Prozesu, produktu eta zerbitzuen ingurumen-inpaktua gutxitzea produktuaren bizi-zikloan barrena, materialak eta baliabideak modu eraginkorragoan erabiliz, eta lehiakortasuna handituz.

Elkarren osagarri ez diren bi ardatzen inguruan egituratzen da azterketa: balio-katea eta hornikuntza-kateko posizioa.

Egindako analisiaren eskema kontzeptuala

Kontzeptua	Definizioa	Saiklapena
Balio-katea	<ul style="list-style-type: none"> Balio-katea da enpresa-sektore bateko agregatua osatzen duten enpresa-jarduera guztien multzoa. Sektore bereko balio-kate desberdinek baliabideak eta gaitasunak partekatu ditzakete, baina euren ezaugarri nagusiak desberdinak izaten dira aplikatu daitezkeen konponbide eta teknologiei dagokienez. 	<ul style="list-style-type: none"> Hondakinen kudeaketa  Uraren ziklo integrala  Ingurumenaren kalitatea  Lurzoru kutsatuak  Ekosistemak  Fabrikazio ekoeraginkorra eta ekodiseinua 
Hornikuntza-katea	<ul style="list-style-type: none"> Hornikuntza-katea da enpresek daukaten zuzeneko nahiz zeharkako harremana ingurumen-sektoreko oinarritzko balio-katean garatzen diren jarduerekin. Operatzaileak balio-kateko eragile edo agente zuzenak izango lirateke, eta gainerako antolakunde osagarriak, berriz, fabrikatzaileen edo zerbitzu-enpresen multzoetan banatu daitezke. 	<ul style="list-style-type: none"> Operatzailea Zerbitzu-emailea Ekipo eta osagaien fabrikatzailea

Bigarren mailako informazioa eskuratzeko eta enpresak identifikatzeko hainbat iturri kontsultatu dira, batez ere iturri publikoak eta BasqueTrade and Investment agentziak nahiz ACLIMAK emandako materialak.

Erabilitako iturrien zerrenda

Informazio publikoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresen direktorioak eta Merkataritza-erregistroa ▪ Aldizkari espezializatuak (Empresa XXI, etab.) ▪ Txostenak eta merkatuko azterketak ▪ Datu-base estatistikoak (Basquexport, EUSTAT, INE, etab.)
BTIk proiektuaren eskura jarritako materialak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Basque Startup Ecosystem txostena ▪ Enpresen datu-baseak
Klusterren materialak, proiektuaren eskura jarriak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskadiko Kluster Elkarteetako bazkideen direktorioak (bereziki ACLIMA Klusterrekoa) ▪ Sektoreko enpresa aktiboaren gomendioak ▪ Klusterrarentzat erreferentziako diren ingurumen arloko EJSNak
Elkarteak eta enpresa-taldeak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingurumen-sektorearekin zerikusia duten Espainiako elkarteak ▪ Beste organismo sektorial batzuk (Ihobe, URA, Basque Ecodesign Centre, Basque Circular HUB...)

Adibidez: ACLIMA Klusterreko bazkideen direktorioa



Bi ikuspegi erabili dira: top-down ikuspegia (enpresen datu-baseetatik abiatuta), eta bottom-up ikuspegia (elkarteak, proiektuak, etab.)



Sektorekoak diren ala ez argi ez dagoen enpresen kasuan, hainbat irizpide objektibo aplikatu dira

Sektorekotzat hartua izateko baldintzak

Ingurumen-sektoreko enpresak dira...	
Balio-kateko posizioa	<ul style="list-style-type: none"> ... sektoreko balio-kateren batean eragile nagusi direnak <ul style="list-style-type: none"> Adibidez: operatzaileak eta hornitzaile zuzenak
Produktu eta zerbitzuen garrantzia	<ul style="list-style-type: none"> ... sektoreko balio-kate edo hornikuntza-kateren batean paper garrantzitsua duten produktu edo zerbitzuak dituztenak <ul style="list-style-type: none"> Adibidez: balbulak, neurgailuak, hodiak, etab.
Negozio-ildo espezifiko bat izatea	<ul style="list-style-type: none"> ... sektorerara bideratutako negozio-ildo espezifiko bat dutenak <ul style="list-style-type: none"> Adibidez: Ur garraiorako azpiegiturak egiten dituen negozio-adar bat daukan eraikuntza enpresa bat
Produktu eta zerbitzuen espezifikotasuna	<ul style="list-style-type: none"> ... ingurumen-sektorerako espezifikoki diseinatutako produktu eta zerbitzuak dituztenak <ul style="list-style-type: none"> Adibidez: Ura garraiatzeko balbula bereziak egiten dituen enpresa bat
Fakturazioaren pisua ingurumen-sektorean	<ul style="list-style-type: none"> ... fakturazio osoaren % 80 baino gehiago ingurumen-sektoreko enpresei egiten dietenak, nahiz eta erabilera orokorreko produktu bat izan <ul style="list-style-type: none"> Adibidez: Bakarrik hondakinak garraiatzen dituen garraio-enpresa bat

Guztira, 301 antolakunde sartzen dira Euskadiko ingurumen-sektorearen abaguneari buruzko azterketaren perimetroan: kolektiboaren % 53 ingurumen arloko operatzaileak dira (ekoindustria) eta kontuan hartutako unibertso osoaren % 31 ACLIMA Klusterreko bazkideak.

Euskadiko ingurumen-sektorearen Abaguneari buruzko Azterketarako perimetroa



Kanpoan uzteko arrazoi nagusiak:

- Dagoeneko kontuan hartu diren taldeetako filialak
- ABEEak
- Bikoiztuak
- Ez dago horiei buruzko informazio publikorik
- Ez dago jarduerari buruzko daturik EAERI dagokionez
- Ez dute jarduera esanguratsurik ingurumen-sektorean

** Análisi hau egitean kontuan hartu dira erabilitako metodologian zehaztutako baldintzak betetzen dituzten enpresa guztiak eta, aldi berean, SABIk emandako datuen arabera egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak eta, orobat, behar adina datu dutenak análisisi ustiatu ahal izateko. (SABlri egindako azken kontsultaren data: 2022ko uztaila).*

Lehen mailako informazioa eskuratzeko onlineko galdetegi bat egin da, baita ere telefono bidezko jarraipena, eta batzarrak egin dira lehentasunezko enpresa eta agente zientifiko-teknologikoekin

Lehen mailako informazioa lortzeko prozesua

Harremanetan jarri gara galdetegi bidez analisiaren perimetro barruko enpresa guztiekin, eta hauxe izan da parte-hartze tasa:

- 60tik gora erantzun baliagarri galdetegiari
- 14 elkarrizketa eginak agente esanguratsuekin



Aipagarria da galdetegia erantzun ez duten enpresen kasuan estimazioak egin direla irizpide hauetan oinarriturik:

- SABI/Orbis datu-baseetatik ateratako informazioa (2018-2020 urteen artekoa, eskura dagoen azken datua aukeratuz) + Web analisia + Agenteen lehen mailako informazioa
- Ingurumen-sektoreko jarduera-portzentajearen estimazioa, web orrien analisiaren bidez
- Agenteen jarduera-motaren ezaugarriak
- Agenteen kokapena ingurumen-kateen barruan
- Diru-sarreraren eta enpleguaren estimazioa, elkarrekin alderatuz SABIko informazioa, galdetegiak eta web orriko informazioa.

Estudio sobre Coyuntura del Sector Medioambiental Vasco y su potencial de Internacionalización

1. Descripción del perfil de la empresa o grupo:

9.1 Descripción completa de su empresa:

9.2 ¿Forma su empresa parte de un grupo? SI NO 9.2.9 Nombre del grupo o matriz:

9.3 ¿Cuál es el origen del capital social del grupo o, en su defecto, de la empresa? Vasco Resto del Estado Internacional

9.4 ¿Forma su empresa o grupo matriz su sede social en Euzkadi? SI NO
(Por favor, una institución extranjera tendrá su sede social fuera de Euzkadi)

9.5 Señala el alcance definido. ¿Cuenta su empresa o grupo con centros productivos fuera de Euzkadi? SI NO

Datos de contacto:

Nombre y razón social de la empresa o grupo: CIF: Ciudad:

Correos electrónicos (puede haber varios, poner primero el):

Nombre: Cargo: Teléfono:

Dirección web:



Permiso de contacto a quien dirigirá para consultas o aclaraciones sobre este cuestionario:

Nombre y apellidos: Cargo (solo en la empresa o grupo): Teléfono: E-mail:

Observaciones:

Euskadiko ingurumen-sektorean 301 antolakunde daude. Gehienak Bizkaiko enpresak dira, sektorearen erdia baino gehiago (% 54), gero Gipuzkoakoak (% 32), eta azkenik Arabakoak (% 14).

Kolektiboaren banaketa lurralde historikoka





02


Euskadiko ingurumen-
sektorearen ezaugarriak

Ondorio nagusiak


<p>Enpresen kolektiboa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskadiko ingurumen-sektorean 301 antolakunde daude. Gehienak Bizkaiko enpresak dira, sektorearen erdia baino gehiago (% 53), ondoren Gipuzkoakoak (% 32), eta azkenik Arabakoak (% 15). ▪ Sektorearekin erlazionatutako agente gehienak (% 97) enpresak dira, baina aipagarria da badaudela zazpi agente zientifiko-teknologiko jarduera esanguratsua dutenak sektorean. ▪ Ingurumen-sektoreko balio-kateari dagokionez, eta enpresa kopuruari begiratuta, hondakinen balio-katea da garrantzitsuena, bertan biltzen direlako 231 enpresa, esan nahi baita aztertutako guztien ia % 80.
<p>Fakturazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aztertutako kolektiboan sektoreak daukan ordezkagarritasunari dagokionez, ingurumenarekin zuzenean lotutako jarduerak fakturazioaren % 56 hartzen du, eskuragarri dauden datuen arabera (3.138 milioi euro 5.648 milioi euroko fakturaziotik). ▪ Sektorearen fakturazio osoa 3.000 milioi eurotik gorakoa da, eta Hondakinen Kudeaketakoa da balio-kate garrantzitsuena, 2.300 milioi euroko fakturazioarekin, hots, sektore osoaren % 73 inguru (burdin hondakinen kudeatzaileak barne direla). Uraren Ziklo Integrala (509 milioi euro) eta Fabrikazio Eraginkorra eta Ekodiseinua (86 milioi euro) dira fakturazio-maila handiena duten beste bi kateak. ▪ Operatzaileek fakturazioaren ia % 79 hartzen dute (ia 2.400 milioi euro), zerbitzu-emaileek % 14 eta fabrikatzaileek % 7. Bestalde, sektoreko fakturazioaren ia % 80 Bizkaian zentratuta dago.
<p>Enplegua</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sektoreak 11.900 pertsona baino gehiago enplegatzen ditu, eta lanpostu gehienak Hondakinen Kudeaketako balio-katean daude, 7.500 langile (guztizkoaren % 63). Uraren Ziklo Integrala (2.000 pertsona baino gehiago) eta Fabrikazio Eraginkorra eta Ekodiseinua (742) dira fakturazio-maila handiena duten beste bi kateak. ▪ Operatzaileek fakturazioaren ia % 63 ordezkatzeko dute (7.500 langile baino gehiago), zerbitzu-emaileek % 31 eta fabrikatzaileek % 6, eta sektoreko enpleguaren ia % 80 Bizkaian kokatzen da.
<p>Enpresa garrantzitsuenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zenbaketa globalean, Euskadiko enpresa garrantzitsuenek ingurumen-fakturazioaren % 36 ordezkatzeko dute. Guztizko fakturazioari erreparatuz gero, bereziki aipatzekoak dira metal kudeatzaileak, eta horien artean Befesa, Hierros Servando eta Idom. ▪ Burdin hondakinen kudeatzaileak alde batera utzita (zeintzuek fakturazio osoaren % 20 inguru ordezkatzeko dute), enpresa garrantzitsuenek fakturazioaren % 30 hartzen dute, eta horien artean bereziki nabarmentzen dira Sener, Grupo Otua eta Ondoan, ingurumen-jarduera garrantzitsua dutenak fakturazioari dagokionez. ▪ Sektoreko enpresa esanguratsuenak aldatu egiten dira aztertutako balio-katearen arabera, eta badago kateka espezializatze joera bat, nahiz eta orobat badauden kate bat baino gehiagotan jarduera transbertsala duten hainbat enpresa. ▪ Balio-kateko posizioari dagokionez, berriro agertzen dira Euskadin gehien fakturatzeko duten lehen 10 enpresak.

Sektorearekin erlazionatutako agente gehienak (% 97) enpresak dira, baina badira zazpi agente zientifiko-teknologiko, sektorean jarduera esanguratsua dutenak.

Kolektiboaren banaketa antolakundearen profilaren arabera




Enpresa-kolektiboaren banaketa hornikuntza-kateko posizioaren arabera




Balio-kateari dagokionez, eta enpresa kopuruari begiratuta, hondakinen balio-katea da garrantzitsuena, bere baitan biltzen dituelarik 231 enpresa, esan nahi baita aztertutako guztien ia % 80.

Kolektiboaren banaketa balio-kateko posizioaren arabera




Sektoreak aztertutako kolektiboan duen ordezkagarritasunari dagokionez, ingurumenarekin zerikusi zuzena duen jarduerak fakturazioaren % 56 eta enpleguaren % 43 ordezkatzan du.

Fakturazioaren banaketa sektoreka (milioi euro, 2020)




Kolektiboko enpleguaren banaketa jardueraka (langileak, 2020)




Sektorearen fakturazio osoa 3.000 milioi eurotik gorakoa da, eta Hondakinen Kudeaketakoa da balio-kate garrantzitsuen, 2.300 milioi euroko fakturazioarekin, hots, sektore osoaren % 73 inguru.

Fakturazioaren banaketa balio-kateka (milioi euro, 2020)




Operatzaileek fakturazioaren ia % 79 ordezkaten dute (ia 2.400 milioi euro), zerbitzu-emaeleek % 14 eta fabrikatzaileek % 7, eta sektoreko fakturazioaren ia % 80 Bizkaian biltzen da.

Fakturazioaren banaketa hornikuntza-kateko posizioaren arabera (milioi euro, 2020)




Fakturazioaren banaketa lurralde historikoka (milioi euro, 2020)




Sektoreak 11.900 pertsona baino gehiago enplegatzen ditu, eta lanpostu gehienak Hondakinen Kudeaketako balio-katean daude, 7.500 langile baino gehiago (guztizkoaren % 63).

Enpleguaren banaketa balio-kateka (milioi euro, 2020)




Operatzaileek fakturazioaren ia % 63 ordezkaten dute (7.500 langile baino gehiago), zerbitzu-emalleek % 31 eta fabrikatzaileek % 6, eta sektoreko enpleguaren ia % 80 Bizkaian kokatzen da.

Langileen banaketa hornikuntza-kateko posizioaren arabera (2020)



Langileen banaketa lurralde historikoka (2020)



Euskadiko enpresa garrantzitsuenek ingurumen arloko fakturazioaren % 40 baino gehiago biltzen dute, bereziki esanguratsuak direlarik Befesa, Gescrap eta Hierros Servando

Enpresa garrantzitsuak Euskadin ingurumen arloko beren jardueraren arabera (2020ko EAeko fakturazioaren arabera ordena)

		Fakturazioa EAEn (2020, milioi euro)	Enplegua EAEn (2020, pertsonak)
1	GRUPO BEFESA	570.115	346
2	GESCRAP	181.520	113
3	HIERROS SERVANDO FERNANDEZ	124.597	55
4	IDOM	80.290	828
5	REINOX METAL 2002	70.910	26
6	METALES UNZUETA	57.657	18
7	HIRUMET	56.891	28
8	ZABALGARBI	49.557	72
9	SENER	42.865	240
10	RECYMET SYSTEMS	42.085	58
TOP 10 GUZTIRA		1.276.487	1.784

* Hamar enpresa nagusiak EAEn duten fakturazio-kopurua eta ingurumenarekiko lotura kontuan hartuta (Burdin hondakinen kudeatzaileak barne)

BEFESA

GESCRAP

Hierros
SERVANDO

IDOM

REINOXMETAL 2002

METALES UNZUETA II S.L.
RECUPERACIÓN Y COMERCIALIZACIÓN DE METALES

RECYMET SYSTEMS

zabalgarbi

SENER

HIRUMET

Burdin hondakinen kudeatzaileak alde batera utzita (zeintzuek fakturazio osoaren % 20 inguru ordezkatzan duten), enpresa garrantzitsuenek fakturazioaren % 30 hartzen dute, eta horien artean bereziki nabarmentzen dira Sener, Grupo Otua eta Ondoan, ingurumen-jarduera garrantzitsua dutenak fakturazioari dagokionez.

Enpresa garrantzitsuenak Euskadin ingurumen arloko beren fakturazioaren arabera (2020ko EAEko fakturazioaren arabera ordena)

		Fakturazioa EAEn (2020, milioi euro)	Enplegua EAEn (2020, pertsonak)
1	GRUPO BEFESA	570.115	346
2	IDOM	80.290	828
3	ZABALGARBI	49.557	72
4	SENER	42.865	240
5	GRUPO OTUA	39.874	82
6	ONDOAN	31.084	350
7	GSM MEDIOAMBIENTE	30.836	645
8	CEMENTOS LEMONA	29.669	110
9	RIKUTEC Iberia	28.000	25
10	GAIMAZ	27.140	41
TOP 10 GUZTIRA (Burdin kudeatzaileak izan ezik)		929.430	2.739

* Hamar enpresa nagusiak EAEn duten fakturazio-kopurua eta ingurumenarekiko lotura kontuan hartuta.
(Kudeaketa erabat publikoko enpresak eta burdin hondakinen kudeatzaileak izan ezik)

BEFESA

IDOM

zabalgarbi

SENER

GRUPOTUA

Ondoan
close solutions

**GM
SM**


CEMENTOS LEMONA
A CEM COMPANY

RIKUTEC
RIKUTEC Group

GAIMAZ

Sektoreko enpresa esanguratsuenak aldatu egiten dira aztertutako balio-katearen arabera, eta badago kateka espezializatzeko joera bat, nahiz eta orobat badauden kate bat baino gehiagotan jarduera transbertsala duten hainbat enpresa

Enpresa garrantzitsu batzuk Balio-katearen arabera*



*Enpresak aukeratzeko kontuan hartu dira fakturazioa eta ordezkagarritasuna (ordena alfabetikoan)

Balio-kateko posizioari dagokionez, berriro agertzen dira Euskadin gehien fakturatzten duten lehen 10 enpresak.

Enpresa garrantzitsu batzuk Balio-kateko posizioaren arabera*



*Enpresak aukeratzeko kontuan hartu dira fakturazioa eta ordezkagarritasuna (ordena alfabetikoan)



03

Egungo egoera eta
nazioartekotze-potentziala

Ondorio nagusiak egungo egoerari eta nazioartekotze-potentzialari buruz

Nazioarteko presentzia gaur egun

- Guztira 82 agentek (guztizkoaren % 29) eskaini dituzte esportazioko edo nazioarteko presentziari buruzko datuak, SABIn eskuratutako datuen arabera
- Euskadiko ingurumen-sektorearen nazioarteko presentzia (produktiboa zein komertziala) 5 kontinenteetara eta 54 herrialdetara iristen da, euren artean aipatzekoak direlarik AEBak (16 enpresa), Mexiko (12), Erresuma Batua (11), Alemania eta Txina (10 bakoitzean).
 - Guztira, 32 agentek daukate presentzia nazioartean. Horietatik 14 fabrikatzaileak dira, 12 zerbitzu-emaileak eta 5 ingurumen arloko operatzaileak.
 - Geografikoki, bereziki nabarmentzen dira Asia (euskal presentzia duten 18 herrialde eta 14 agente, gehienbat Txinan (10) eta Indian (6), baina euskal presentzia dago baita ere Ekialde Ertainean eta Singapur edo Hong Kong bezalako hub asiarretan), Europa (17 herrialdetan presentzia duten 18 erakunde, geografikoki oso banatuta, nagusi direlarik EB + Erresuma Batuko merkatu handiak) eta Amerika (12 herrialdetan presentzia duten 27 erakunde, AEBetan 16, Mexikon 12 eta Perun 8).











Lehentasunez ko merkatuak

- Enpresek hainbat datu eskaini dituzte EBko merkatu hurbilei, Latinoamerikako merkatuei, AEBetako estatu jakin batzuei eta munduko beste toki batzuetako nitxo zehatz batzuetako merkatu zenbaiti buruz. Gainera, alde handia dago agente teknologikoki aurreratuen (EB eta AEBetan zentratzen dira) eta gainerako agenteen (Latinoamerikan zentratzen dira eta Europan dute garapen komertzial handiena) artean.
 - Oro har, sektore honek nazioartekotze-maila txikia dauka, eta premia /interesa ere mugatua, salbu eta agente oso bereizientzat (teknologia, prozesua, produktua) edo bezero handien erabaki-guneetara hurbiltzeko beharra dutenentzat.
 - Sartzeko oztopoak: tamaina, presentzia, bitartekoak, lehia. Araudi-esparruek ez dute izaten eraginik.
 - Produkzio arloko presentzia eskasa atzerrian

Merkatuetara sartzeko giltzarriak eta aukerak

- Jomuga-herrialdeetako tokiko aliantzak oinarritzko faktorea dira arrakasta izateko eta hobeto iristeko herrialdearen zein bezero espezifikoaren premietara, bai eta erakunde multilateralek finantzaturako proiektuetara.
 - Tokiko aliantzak garrantzitsuak dira tokian tokiko konponbideak eskaintzeko eta enpresa ezagutarazteko herrialdean/ingurune komertzialean.
 - Erakunde publikoek lideraturako partzuergo lehiakorrak garrantzitsuak dira funts multilateralek eskuratzeko (BID, Europe Aid...), eta ikuspegi indibidualak behar dira, agente guztiak desberdinak izanik ez delako erraza sinergiak aurkitzea.
- Bestalde, funtsezko hainbat aukera identifikatu dira: sektore-kateaketa (gaitasunen katalogo bat garatzea) sustatzea, garatze fasean dauden araudiekiko merkatuetan zentratzea eta eskaintza oso bat lantzea ingurumenari buruzko ikerketen eta horiek inplementatzeko behar diren konponbide teknologikoen inguruan.


Ingurumen-sektoreko euskal enpresek presentzia handia dute nazioartean, IDOM, SEGULA eta SENER direlarik ezarpen gehien dituztenak.

	Aljeria, Senegal, Brasil, Kanada, Txile, Kolonbia, AEBak, Mexiko, Peru, India, Turkia, Danimarka, Frantzia, Irlanda, Portugal, Erresuma Batua, Polonia, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak	19		Aljeria, Txina, Dubai, Estatu Batuak, India, Italia, Mexiko	7
	Alemania, Australia, Brasil, Kanada, Txina, AEBak, Eslovakia, India, Maroko, Mexiko, Portugal, Erresuma Batua	12		Txina, Kolonbia, India, Italia, Mexiko, Peru	6
	Australia, Kanada, Txina, Kolonbia, Hego Korea, AEBak, Arabiar Emirerriak, Qatar, Erresuma Batua, Hegoafrika	10		Argentina, Australia, Brasil, AEBak, Hong Kong	5
	Erresuma Batua, Herbehereak, Txipre, AEBak, India, Txina, Txile, Saudi Arabia	8		Alemania, Ekuador, Italia, Mexiko, Trinidad eta Tobago	5
	Alemania, Txile, AEBak, Finlandia, Frantzia, Errusia, Suedia	7		Maroko, Egipto, Mexiko	3

OHARRA: Hemen agertzen diren enpresak garrantzitsuenak dira 2020ko ingurumen-sektoreko fakturazioaren arabera. Nazioarteko presentziari buruzko datuak lehen eskuko iturrietatik (inkestak/elkarrizketetatik) edo bigarren eskuko iturrietatik (iturri publikoetatik) lortu dira, eta enpresaren instalazioak edo operazio-zentro fisikoak dituzten herrialdeei dagozkie.

Guztira 82 agentek (guztizkoaren % 27) eskaini dituzte esportazioko edo nazioarteko presentziari buruzko datuak, SABIIn eskuratutako datuen arabera

Azken hiru urteetan esportazio-zifraren bat izan duten enpresak (SABIko datuak)




1. AGRUPA LABORATORIO
2. ARCELORMITTAL SESTAO
3. BALENCIAGA
4. BASOINSA
5. BEOTIBAR RECYCLING
6. BEFESA ZINC COMERCIAL
7. BEFESA ALUMINIO
8. BEFESA ZINC
9. BEFESA ZINC ASER
10. BERRIZ RECYCLING COMPANY
11. BIDATEK INGENIERIA AMBIENTAL
12. BIRZIPLASTIC
13. BROMALGAE
14. BUNT PLANET
15. CADAGUA
16. CEIT
17. CEMENTOS LEMONA
18. COMETEL RECYCLING SOLUTIONS
19. CRONIMET HISPANIA
20. DEYDESA 2000
21. DORLET
22. DRENATURA
23. ECOMAGNET
24. EKOTEK
25. EKOTRADE RCD'S
26. ENVAC IBERIA
27. ESTUDIOS E INGENIERIA APLICADA XXI
28. FACTOR CO2
29. FAGOR AUTOMATION
30. FCC AMBITO
31. FINANCIERA Y MINERA
32. FIVEMASA
33. FLUYTEC
34. FRAGNOR
35. FULCRUM
36. FUNDACION GAIKER
37. FUNDACION TECNALIA
38. GEOTECH GESTIÓN ESPACIAL
39. GESCRAP
40. NATURKLIMA
41. GRUPO TRADEBE
42. HIERROS ALAVA
43. IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA
44. INDUMETAL RECYCLING
45. LOINTEK
46. INGENIOUS MEMBRANES
47. IK INGENIERIA
48. JOLAS
49. KOLLVIK RECYCLING
50. KREAN GROUP
51. LUNDBERG
52. LIMIA & MARTIN
53. LIMPIEZAS NERVION
54. MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE URIBE KOSTA
55. MANCOMUNIDAD SERVICIOS DEL UROLA MEDIO
56. MAQUINAS PNEUMATICAS ROTATIVAS XXI
57. METALES BOLUETA
58. NEIKER
59. EKO3R
60. ONDOAN
61. QUILTON
62. RECIRCULAR SERVICIOS AMBIENTALES
63. RECUPERACIONES DE VIDRIO NORTE
64. REIMASA
65. RECYCLAIR
66. RIKUTEC IBERIA
67. SAICA NATUR NORTE
68. SARRALLE
69. SASIETA MANKOMUNITATEA
70. SEGULA TECNOLOGIAS
71. SENER
72. SERCONTROL 2000
73. SIDENHOL
74. SISTEPLANT
75. SOLVE IMI
76. SPOUTED BED SOLUTIONS
77. SUEZ TREATMENT SOLUTIONS
78. TECNICAS DEL AGUA UREN
79. TECNICAS HIDRAULICAS
80. TRADEBE
81. VI4CRANE
82. ZB GROUP

Euskadiko ingurumen-sektorearen nazioarteko presentzia (produtiboa zein komertziala) 5 kontinenteetara eta 54 herrialdetara iristen da, euren artean aipatzekoak direlarik AEBak (16 enpresa), Mexiko (12), Erresuma Batua (11), Alemania eta Txina (10 bakoitzean).

- Guztira, 32 agentek daukate presentzia nazioartean. Horietatik 14 fabrikatzaileak dira, 12 zerbitzu-emaileak eta 5 ingurumen arloko operatzaileak.
- Geografikoki, bereziki nabarmentzen dira Asia (euskal presentzia duten 18 herrialde eta 14 agente, gehienbat Txinan (10) eta Indian (6), baina euskal presentzia dago baita ere Ekialde Ertainean eta Singapur edo Hong Kong bezalako hub asiarretan), Europa (17 herrialdetan presentzia duten 18 erakunde, geografikoki oso banatuta, nagusi direlarik EB + Erresuma Batuko merkatu handiak) eta Amerika (12 herrialdetan presentzia duten 27 erakunde, AEBetan 16, Mexikon 12 eta Perun 8).

Nº y tipo de agentes por país

POSICION CADEN... ● FABRICANTE ● OPERADOR MEDIOAMBIENTAL ● SERVICIOS



Enpresek hainbat datu eskaini dituzte EBko merkatu hurbilei, Latinoamerikako merkatuei, AEBetako estatu jakin batzuei eta munduko beste toki batzuetako nitxo zehatz batzuetako merkatu zenbaiti buruz. Gainera, alde handia dago agente teknologikoki aurreratuen (EB eta AEBetan zentratzen dira) eta gainerako agenteen (Latinoamerikan zentratzen dira eta Europa hurbilenean dute garapen komertzial handiena) artean.

Eskualdea	Herrialde interesgarrienak	Oharrak	Estrategia
EB	<ul style="list-style-type: none"> Lehentasunezkoak: Frantzia, Portugal, Alemania 	<ul style="list-style-type: none"> Bereziki Alemaniaren kasuan, merkatu honek nazioarteko plataforma gisa funtzionatzen du, merkatuan arrakasta duten enpresen nazioarteko jardura komertziala bultzatzeko. Kontuan hartu behar da lehiakortasun handiko merkatua dela. Merkatu heldua da eta oztopo teknikoak daude sartzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Sare komertzialaren garapenean zentratzea + bezero handiengana hurbiltzea. Inguruko herrialdeetako presentzia indartzea
Ipar Amerika	<ul style="list-style-type: none"> AEBak 	<ul style="list-style-type: none"> Gaur egun badaude aukerak azpiegituren eta saneamendu publikoaren arloetan Zaila da AEBetan sartzeko Estatu bakoitzeko araudia desberdina delako eta bertako lehia handia. 	<ul style="list-style-type: none"> Estatu jakin batzuetan zentratzea Xeheki aztertu behar da tokiko jomuga merkatua
Latinoamerika	<ul style="list-style-type: none"> Lehentasunezkoak: Mexiko, Txile, Uruguai, Kolonbia Beste batzuk: Peru, Bolivia, Argentina 	<ul style="list-style-type: none"> Identifikatu den merkatu interesgarriena Badaude aukerak intentsitate txikiagoa duten merkatuetan (Peru, Ekuador, Kolonbia), baina beste merkatu batzuk erakargarriagoak eta lehiakorragoak dira (Mexiko, Txile, Brasil) Aurreko esperientziek arrakasta mugatua izan dute → LatAm eskualdean epeak asko luzatzen dira eta interesa berehala aldatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Eremu geografiko interesgarriena Erakunde multilateralekin garatutako proiektuetan zentratzea Tokiko eskualde espezifikoetan zentratzea eskala txikiko pilotuak garatzeko (eta nazioarteko hiri handiak baztertzea, puntako enpresen kasuan salbu)
Asia	<ul style="list-style-type: none"> Ekialde Ertaina, Japonia 	<ul style="list-style-type: none"> Merkatu interesgarriak produktu- edo jardura-nitxo oso espezifikoentzat eta eremu oso konkretuetan. Garrantzitsua da bezero handien egoitza nagusietara hurbiltzea Merkatu interesgarriak izan daitezke eurekin elkarlanean sartzeko beste merkatu batzuetara (adibidez, Asia Hego-ekialdera, Latinoamerikara) Euskal enpresentzat zaila da hara iristea baliabide faltagatik 	<ul style="list-style-type: none"> Interesgarria da erabaki-guneetara hurbiltzea (Japonia, Korea, Txina) lankidetzak lortzeko Eremu jakin batzuetako (Ekialde Ertaina, Ekialde Urruna) nitxo espezifikoetan (urak, hondakinak) zentratzea
Beste eskualde batzuk	<ul style="list-style-type: none"> - 	<ul style="list-style-type: none"> Marokok eta Afrika iparraldeak gero eta premia handiagoak dituzte, batik bat saneamenduaren eta uraren arloetan 	<ul style="list-style-type: none"> Maroko garatzeko aukera-merkatu gisa

- Oro har, Euskadiko ingurumen-sektoreak **nazioartekotze-maila txikia dauka**, eta eskala lokalean garatzen ari da oraindik kasu askotan.
- Sektorearen produkzio arloko presentzia oso txikia da atzerrian.
- Aipatzekoa da badaudela agente oso bereizi batzuk (teknologia, prozesua, produktua) eta badaudela baita ere bezero handiei ekipoak/zerbitzuak hornitzeko premia erreaktiboak dituzten enpresak, horiek direlarik sektorean nazioartekotuen daudenak.
- Produktu aurreratuen **fabrikatzaile aurreratuentzat merkatu garatuenek dute lehentasuna**.
- Sartzeko oztopo garrantzitsuenak:** tamaina, jomugako presentzia eza, bitartekoak, lehia.
- Badago **aukera bat sektorearen nazioarteko garapenerako**, ingurumen-sektoreko konponbideen eskaera gero eta handiagoa delako maila globalean.

Jomuga-herrialdeetako tokiko aliantzak oinarrizko faktorea dira arrakasta izateko eta hobeto iristeko herrialdearen zein bezero espezifikoaren premietara, bai eta erakunde multilateralek finantzatutako proiektuetara. Bestalde, funtsezko hainbat aukera identifikatu dira: sektore-kateaketa (gaitasunen katalogo bat garatzea) sustatzea, garatze fasean dauden araudiekiko merkatuetan zentratzea eta eskaintza oso bat lantzea ingurumenari buruzko ikerketen eta horiek inplementatzeko behar diren konponbide teknologikoen inguruan.

Merkatura sartzeko giltzarriak

- **Tokiko aliantzak garrantzitsuak** dira tokian tokiko konponbideak eskaintzeko eta enpresa ezagutarazteko herrialdean/ingurune komertzialean.
- **Erakunde publikoek lideratutako partzuergo lehiakorrek garrantzitsuak dira funts multilateralek eskuratzeko** (BID, Europe Aid, ...)
- Faktore ekonomikoa erabakigarria izaten da: zaila da lehiatzea tamaina handiagoko agenteak daudenean, dela merkeagoak direlako, dela Euskaditik eskaintzerik ez dagoen zerbitzuak eskaintzen dituztelako
- Ikuspegia indibiduala izan behar da eta ez dira bilatu behar aliantza behartuak beste euskal enpresa batzuekin, agente guztiak desberdinak izanik ez delako erraza sinergiak aurkitzea.

Nazioartean garatzeko aukerak

- **Nazioartekotzea sektore-kateaketa bidez:**
 - “Katalogo” sektorial bat sortu behar da enpresek (batez ere zerbitzuetakoek) ezagutu dezaten Euskadin lanean ari diren enpresen sare osoa.
 - Garrantzitsuak dira tamaina eta irismen handiko ingeniariak eta enpresak, fabrikatzaile txikiek beste merkatu batzuetan sar ditzaten beren produktuak
- **Giltzarri geografikoak:** aukerak daude ingurumen arloko araudi malgua edo ahula duten merkatuetan baina arauak gogortu nahi dituztenetan.
- **Giltzarri teknikoak:** enpresa eta erakunde publikoentzako ingurumen arloko azterketak ustiatu beharreko nitxo bat da, zeren deskarbonizazioarekin lotutako eskakizunak gero eta zorrotzagoak izango baitira mundu osoan. Azterlan horiekin batera konponbide eta teknologiak eskain daitezke ingurumen-inpaktua murrizteko eta baliabideak hobeto aprobetxatzeko, eta askotan espezifikoak bezero bakoitzarentzat.



04

Ondorio nagusiak

Ondorio nagusiak agente motaren arabera - Azterlanak erakusten du sektorea oso izaera ezberdineko enpresez osatua dagoela, jarduera berdina egiten dutenean ere ez dela sortzen sinergia handirik euren artean (merkatu-nitxo oso espezifikoak), sektoreak masa kritiko bat lortu behar duela nazioarteko merkatuetan lehiatu ahal izateko (kateaketak, tokiko aliantzak), eta laguntza publikoa behar duela erreferentziazko proiektuak lortzeko (erakunde multilateralak, *player* pribatu handiak).

Jarduera mota	Ezaugarri orokorrak	Nazioartekotzeari buruzko ondorioak
Ingurumen arloko operatzaileak / Ekoindustria	<ul style="list-style-type: none"> Enpresa handiak (hondakinen kudeaketako multinazionalak, metalen balorizaziokoak eta uren arazketakoak), ertainak (desegite-tailerrak) eta txikiak (hondakinen bilketa eta garraioa) Administrazio publikoarekin lotutako enpresak edo tokiko ingurunera oso bideratuak 	<ul style="list-style-type: none"> Enpresa txikien jarduera ez dago nazioartekotzera bideratuta Enpresa handiak nazioarteko taldeetakoak dira edo nazioartekotuta daude eta badute trakzio-indarra
Ekipo eta teknologien fabrikatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Enpresa txikiak eta desberdintasun handiak dituztenak maila teknologikoan Potentziala duten startup-ak, sektorearen digitalizazioarekin lotuta daudenak. Garapen maila eta fase desberdinetan dauden produktu teknologikoak, baina nazioartean azkar merkaturatzeko bokazioa dutenak Ingurumen-sektorerara zuzenean bideratuta ez dauden fabrikatzaileak, baina sektorerara zuzendutako edo sektorean aplikatu daitezkeen produktu batzuk dituztenak 	<ul style="list-style-type: none"> Nazioartekotzeko potentzial handiena duten agenteen profila. Osagai teknologiko handiko produktuak dituzten enpresak: EB, AEBak eta Ekialde Ertaina, nagusiki. Sarritan ingeniariak handien, beste bezero batzuen edo administrazio publikoen beharra dute euren produktuak nazioartekotzeko. Fabrikatzaile txikiek nazioarteko gaitasun komertziala indartzeko beharra dute.
Ingurumen arloko zerbitzu aurreratuak	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumen arloko aholkularitzak (ertain-txikiak) Agente zientifiko-teknologikoak Ingeniaritzak 	<ul style="list-style-type: none"> Dagoeneko nazioartekotuta dauden edo bokazio eskasa duten agente zientifiko-teknologikoak. Parte-hartze handia Europako ikerketa proiektuetan Nazioarteko lehiakideen aldean oso txikiak diren aholkularitzak Nazioarteko proiektuen tamaina biziki garrantzitsua da. Agenteen arteko lankidetzarako aukerak kontu handiak eskuratzeko (meatzaritzako player handiak, Oil&Gas eta proiektu handiak). Lizitazioak eta proiektu multilateralak monitorizatu nazioarteko bezeroengana iristeko. Kolaborazio-sinergiak identifikatu lehentasunezko merkatuetan sartzeko: <ul style="list-style-type: none"> Latinoamerika: Txile (nahiz eta oso lehiakorra den), Kolonbia eta, gutxiago, Ekuador eta Peru

Ondorio nagusiak bultzada publikoari eta existitzen diren tresnei buruz - Existitzen den laguntza publikoa ondo baloratzen da, baina nabaria da ekintza komertzialak laguntza gehiago behar duela eta tresna horietako batzuek eboluzionatu egin behar dutela (adibidez, Pilotu “Advanced” edo “High Tech” abiarazi behar lirateke EB eta AEBetarako), existitzen diren gaitasunen mapa bat sortu eta zabaldu behar dela, eta kalitatezko adimen lehiakorra eskuratzeko aukera hobetu.

Existitzen diren zerbitzuen balorazioa

- SPRI & BasqueTrade-ren ezagutza handia. Sarritan aipatzen dira ICEXen laguntzak.
 - Balorazio onak PILOTU eta HAZINNOVA programentzat: PILOTUK funtzionatzen du, baina bereziki bideratzen da amaierako bezerotzat erakunde publiko bat duten proiektuetara, eta batzuetan beharrezkoa da lan egitea bezero pribatuekin edo balio handiko sektore/geografietako bezeroekin (EB, AEBak), beste merkatu batzuk irekitzeko erreferentzia gisa → **PILOTU HIGH TECH** programa bat garatu daiteke merkatu aurreratuetao produktu/zerbitzu berritzaileentzat
- Balorazio onak ACLIMAREN laguntzarentzat.

Erronka nagusiak

- **Sektorean laguntza indibidualizatua behar da.** Nazioartekotzeko euskal partzuergoak sortzeko saiakerak ez dira eraginkorrak. Batzuetan top-down aukeratutako nazioarteko partzuergoak sortu behar dira lantalde onenarekin aurkezteko lizitazioetara, bakarrik euskaldunekin aritu ordez.
- **Laguntza behar da ekintza komertzialari ekiteko eta tokiko bazkideak bilatzeko.**
 - Pertsona propioak kokatu behar dira ezarpenak egiteko aukerak eskaintzen dituzten herrialdeetan.
 - Balizko bezeroak eta merkatuetara sartzeko bideak identifikatzeko zerbitzuak indartu behar dira.
- **Adimen lehiakorreko zerbitzuak sustatu behar dira.** Garrantzitsua da alde aurretik izatea lehiaketa publiko interesgarriei buruzko informazioa, hau da, lizitatuzaileei eta jomuga-herrialdeko agente esanguratsuei buruzkoa.
 - Mekanismoak sortu behar dira zaintza estrategikorako eta aukera-merkatu garrantzitsuenetako joerak monitorizatzeko, aukera egon dadin ekintza-estrategia proaktiboak diseinatzeko nazioarteko merkatuetarako.
 - Interesgarria da **prospektiba teknologikoko dinamikak** sustatzea sektorearentzat potentziala duten merkatuetan.
- Interesgarria da **sektoreko enpresen gaitasun eta produktu/zerbitzuen mapa bat sortzea.**

Ingurumen-sektorearen AMIA nazioartekotze arloan

AHULUNEAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> Oro har, enpresak oso txikiak dira nazioarteko lehiakideen aldean, eta hori oztopo bat da proiektu handietara iristeko Bitartekoak falta dira nazioartekotze prozesuei ekiteko Enpresa txikien jarduera ez dago nazioartekotzera bideratuta 	<ul style="list-style-type: none"> Dagoeneko nazioartekotuta dauden agente zientifiko-teknologikoak. Parte-hartze handia Europako ikerketa proiektuetan Enpresa handiak nazioarteko taldeetakoak dira edo nazioartekotuta daude Badira trakzio-enpresak, presentzia globala dutenak Nazioarteko ibilbidea Sostengu publikoko sarea Agente asko Uraren eta Hondakinen balio-kateetan
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> Zaila da sinergiak aurkitzea sektore barruan, agenteak oso desberdinak direlako Nazioarteko lehia gero eta handiagoa Proiektuen tamaina gero eta handiagoa Hornitzaile gutxi batzuetan kontzentratzeko joera Araudi-oztopo handiak, merkatu giltzarrietara (EB, ABEak) sartzea eragozten dutenak 	<ul style="list-style-type: none"> Existitzen diren laguntza-tresnak eboluzionatu Nazioarteko presentzia komertziala indartu Partzuergoen garapena eta aukeretara iristeko bidea indibidualizatu Sektore barruko lankidetzak eta existitzen diren gaitasunei buruzko ezagutza garatu Adimen lehiakorra sendotu, eta tokiko partner-engana iristeko bidea hobetu Erreferentziatzko proiektuetan kolaboratu beharra dago proiektu pribatu handiei ekiteko (meatzaritza eta Oil&gas sektoreko player handiak eta proiektu handiak) Lehentasunezko merkatuak: <ul style="list-style-type: none"> Merkatu hurbilak, EB + Erresuma Batua Latinoamerika: Txile (nahiz eta oso lehiakorra den), Kolonbia eta, gutxiago, Ekuador eta Peru AEBetako estatu aukeratuak Beste geografia batzuk: Maroko, Asiako hub-ak (Txina, India, Ekialde ertaina, Japonia eta Korea)



Urkixo Zumarkalea, 36-5. solairua, Plaza Bizkaia Eraikina

48011 Bilbo info@basquetrade.eus

(+34) 94 403 71 60